

2022KO PATOJAS BEKEN BOLETINA

2022KO PATOJAS IKASKETA
BEKEN PROIEKTUKO LABURPEN
BOLETINA



PATOJAS
IKASKETA BEKEN
PROIEKTUA

2022KO IKASTURTEA

Ikasturtea 155 bekadunek hasi dute.
Guztira, 127 *patoja*, ia %82a.

%81,93A

Neskak eta
emakumeak dira.
GUZTIRA 127.

155
IKASLE

Iaz, 2021eko kurtsoan, **33 ikaslek amaitu zuten ikasturtea**. Aurten, 118 bekadun jarraitzen dute eta **37 berri gehitu dira**. Nahuláko taldearekin zikloa amaitu dugu, azken ikaslea ikasketak amaitu ostean.

		LEHEN HEZKUNTZA		ONARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
TALDEAK		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	TODOS SANTOS					1		1
	IXTAHUACÁN	2	5	3	2	4	2	18
	AJOMAYA	2		7		12	3	24
	CHIANTLA					1		1
SOLOLÁ	CEIBA			5		11		16
	S. L. TOLIMÁN	4		3		5		12
	CASA DE LA MUJER	1		9		7		17
	OXLAJUJ E			7		7		14
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	6	2	8	2	4	2	24
	SUMPANGO	5	5	3	4	8		25
CIUDAD DE GUATEMALA	GUATEMALA	2			1			3
GUZTIRA		22	12	45	9	60	7	155



2022KO PATOJAS BEKEN TALDEAK

2022. ikasturtea, aurrekoan bezala, bi fasetan hasi da: zentro pribatuak urtarrilaren erdialdean eta zentro publikoak otsailaren erdialdean.

Maiatzean, gutunak eta kalifikazio batzuk jasotzen hasi ginen, izan ere, hilabete honetan egiten hasi dira ebaluazioak, batez ere zentro publikoetan, beranduago hasi zirenez, atzerapena dute eta.

Ikasturte berria, aurreko urteetako neurriekin eta murrizketekin hasi zen, udalerrri eta/edo erkidego bakoitzeko kolore semaforoak araututa, ondorioz kolorearen arabera, klaseak eskolan ematen dituzte edo etxetik.

Jakinarazi digutenaren arabera, zentro batzuetan dagoeneko aurrez aurreko klaseak ematen hasi dira asteko egun batzuetan soilik, ikasle asko ez elkartzeko.

Hezkuntza Ministeriotik txertaketa kanpaina bultzatu zuten ikasturtea hasi baino lehen. Datuen arabera, ikasleen % 91ak du txertaketa osoa.

Herrialdean, txertaketa datuak oso baxuak dira, bereziki haurren artean. Datuen arabera, sei eta hamaika urte bitarteko haurren artean % 21,9 soilik txertatu dira. Hala ere, helburua zen aurtengo otsailaren 15erako, ikasgeletara itzultzeko, 1,4 milioi adingabe txertatuta egotea.

Nabarmendu nahi dugu ere, etxetik ikasten egoteagatik aurreikusitako helburuak lortu ez dituzten ikasleentzako edukien errepasoa bultzatu nahi zuela Hezkuntza Ministerioak ikasturte hasieran.

MAPA HONETAN IKUSI DEZAKEZUE GAUTEMALAKO ZEIN ZONALDETAN BANATUTA DITUGUN BEKAK



HUEHUVETENAGO


San Ildefonso Ixtahuacánen jarraituko dugun hainbat urtez lankidetzan jardun dugun bi talderekin:

1- **Bendición de Dios elkarteak** 18 beka ditu aurten eta erdia emakumeak dira. Aurten, hainbat mutil gazteren eskaerak onartu dira lehen hezkuntzarako, osasun arazoak eta emakumeen egoera zailak (guraso bakarreko familiak) direla eta.


2- **AJOMAYA elkarteak** 24 beka ditu eta % 87,5 emakumeak dira.

Chiantlanan, aurten ikasketak bukatuko dituen bekadunak, bere ikasketak Quichéko departamentuan jarraituko ditu.

Amaitzeko, Todos Santos Cuchumatánen, bekadun batek bere batxillergoko ikasketak (zientziak eta letrak) amaituko ditu aurten.



SOLOLÁ



Ikasturte honetan, **San Luchas Tolimánen** jarraituko dugu **12 bekekin**. Sololáko lankidetzak proiektuei esker, **17 beka** gehitu ditugu **Sololáko Emakumeen Etxean**, **16 CEIBA elkartearekin** batera eta **14 Mujeres Mayas Oxlajuj E elkartearekin**.

Emakumeen Etxetik jakinarazi digute ikasturte hasiera zaila izan zela. Beste urte batez, hasiera birtuala izan da eta bekadun batzuek ez zuten aukerarik konektatzeko, baliabide faltagatik. Orain egoera hobetu da eta klaseen % 50a aurrez aurre egiten da. "*Hilabete batzuetan zehar, laguntza eman diegu Interneta izan dezaten*".

Oxlajuj E taldeak ekainean zehar bigarren blokea amaitu dute, eta ikasten jarraitzen dute, aurrez aurre edo modu birtualean. Prestakuntza pertsonaleko prozesuak ere bultzatu dituzte, emakumeen eta herri indigenen eskubideekin lotutako ezagutzak indartzeko, baita emakumeak politikan duten parte hartzeari buruz sentsibilizatzeko. Laburbilduz, horiek ahalduntzea beren bideak eta errealitateak eraikitzeko.

SACATEPÉQUEZ

Sacatepéquezeko departamentuan 49 bekadun daude. Aurtan, Sumpangon 25 beka eman dira eta Santo Domingo Xenacojen, aldiz, 24.

Esan digutenaren arabera, gune honetan astero behin doaz ikastetxeetara, eta gainerako egunetan etxetik ikasten dute. “Gazteak eredu berri honetara ohitzen ari dira, aurrerapauso bat da, baina uste dugu ez dela nahikoa. Orain oporrak datoz eta uste dugu galdutako denbora berreskuratzeko aukera bat dela, nahiz eta irakasleak egoeraren errudun ez izan” esan digute.



SUMPANGO


SANTO DOMINGO XENACOT



CIUDAD DE GUATEMALA

Duela bi urte aita hil ondoren, familia honen eskaera jaso genuen, gazteentzako beken proiektuarekin hiru beka eman genien neba-arrebei ikasten jarrai zezaten.

CIUDAD DE GAUTEMALA



GUATEMALA GAUR EGUN

Aurretik aipatu bezala, Guatemalan, pandemiari dagokionez, semaforoaren koloreak erabiltzen dituzte beren udalerrria/departamentua arriskuan dagoen edo ez jakiteko. Horri dagokionez, nabarmendu behar da, herrialdean oso biztanle gutxi txertatu direla, bereziki haurrak. **Datuen arabera, sei eta hamaika urte bitarteko haurren artean % 21,9 soilik txertatu dira.** Aldaera berriak Guatemalara iritsi dira dagoeneko, eta profesional batzuen arabera “*epidemia gelditzeko gakoa txertaketa unibertsala da, estaldura altuekin*”. Egun, 1.719.767 txerto behar izango lirатеke haurrak immunizatzeke. Haurrak txertatzen ez badira, kasuak areagotzearen arriskua dago.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/el-covid-persistente-o-long-covid-en-ninos-preocupa-a-la-comunidad-medica/>

Gainera, aipatu nahi dugu ere, etengabe ari direla Guatemalako herritarrak beren eskubideen alde borrokan. Parlamentuak onetsi zituen azken legeetako bat Bizitza eta Familia Babesteko Legea izan zen. Hurrengo egunean, presidenteak berak betoa jarri zion.

Legearen oinarritzko hiru proposamenak hauek ziren:

- 1-Zigor kodea aldatzea abortatzen duten emakumeek zigor gogorragoak izan ditzaten.
- 2-Sexualitate hezkuntza guztiz ezabatzea.
- 3-Sexu berdineko pertsonen uztartzea edo ezkontzea debekatzea.

Hiru proposamen horiek herrialdeko neskato, gazte, emakume eta beste hainbat talderengan eragina zuten, baita gazteentzako beka proiektuaren parte zirenengan ere.

<https://www.lagungt.org/la-sociedad-civil-ha-ganado-el-pulso-noala5272/>

EA-LAN, gure proiektuekin, Guatemalako, Euskal Herriko eta munduko beste hainbat lekutako emakume guztien eskubideak defendatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta beti esaten dugun bezala, kalitatezko hezkuntza publikoaren aldeko apustua egiten dugu, zeinean ikusten dugun ezinbestekoa dela Sexu Heziketa Integrala lantzea biltzen ditugun datuak nolabait arintzeko, adibidez, gero eta gazteagoak diren neskatoen haurdunaldiak.

Horri lotuta, aipatu behar dugu Ugalketa Osasunari buruzko Behatokiak argitaratutako datuen arabera, **2022ko urtarrila eta martxoa bitartean, 19.024 ama nerabek erditu dute. martxoaren 23ra arte, 10 eta 14 urte bitarteko 508 neskato haurdun geratu dira, baita 15 eta 19 urte bitarteko 29.623 nerabe ere.**

<https://osarguatemala.org/embarazos-y-registro-de-nacimientos-2022/>

GUATEMALA, NESKEN ETA EMAKUMEENTZAKO HERRIALDERIK ARRISKUTSUEKIN ZERRENDAN DAGO

Gainera, kontuan izan behar dugu, Guatemala neskatoentzako eta emakumeentzako herrialderik arriskutsuenen zerrendan dagoela. Beraz, herrialdeko emakumeak banaka zein taldean ahalduentzako laguntza guztia, aurrera egiteko modu bat izango da. Emakumearen behatokiaren arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren 23.483 salaketa izan dira 2022an dagoeneko, hau da, lehen 4 hilabeteetan erregistratutako espedienteen % 68.

Neskato eta nerabeen aurkako tratu txarrak, sexu indarkeriako delituak, sexu erasoak eta feminizidioak aurkeztutako salaketen % 37 dira.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/justicia/violencia-contra-la-mujer-y-la-ninez-los-delitos-mas-denunciados-en-guatemala-y-estas-son-las-cifras/>

Nola liteke lege batek neskato eta nerabe horiek guztiak denbora luzeagoz zigortu nahi izatea haurdunaldia eten nahi izateagatik? Jakingo duzue, gure proiektuaren helburua da emakume horiek ikasteko aukera izatea, beraientzako egokiena den unean, ama izan ondoren, prestatzen jarraitzeko, lan aukera berriak izateko.

Prestakuntzaren bidez lan aukera berriak izatea gakoa da etorkizunean krisi larriari eta aurtengo prezioen igoerari aurre egin ahal izateko.

GUATEMALAN 900 MILA HAUR BAINO GEHIAGOK LANEAN JARDUN BEHAR DUTE, HERRIALDEKO HAURREN %17A

Jasotako datuen arabera, Guatemalako oinarritzko saskia Q107 garestitu zen eta inflazioa, herrialde gehienetan bezala, % 4,62an zegoen, Gobernuaren arabera.

<https://www.prensalibre.com/economia/en-cuatro-meses-la-canasta-de-alimentos-se-encarecio-q107-como-promedio-mientras-que-el-gobierno-dice-que-la-inflacion-en-abril-fue-de-4-62/>

Hori guztia dela eta, Guatemalako Giza Eskubideen prokuradoretzaren arabera, 900 mila haur baino gehiagok lanean jardun behar dute, hau da, herrialdeko haurren % 17a. Haurrek lan egitea haurtzaroari bere izaera eta duintasuna kentzen dizkio, eta horrek erabateko haurtzaroa izatea eragozten die, garapen fisiko eta mentalari kalte eginda; gainera, oztopatu egiten du eskolaratzeko aukera eta, batez ere, kalitatezko hezkuntza izatea.

<https://twitter.com/PDHgt/status/1536046621657600001/photo/1>

EA-LAn prestakuntza arautuaren (bekekin) eta arautu gabearen (lankidetza proiektuen barruko ekintzak) aldeko apustua egiten dugu. Gune alternatibo horietan, gero eta neskato eta emakume gehiagok aukera dute prestakuntza jasotzeko, hitzaldietara joateko eta egoera berean dauden beste emakume batzuekin egoteko, baita beren eskubideak eta eguneroko bizitzan bizi behar dituzten indarkeria horiei guztiei nola aurre egin jakiteko ere.

Horregatik guztiagatik, aldeko apustua egin ahi dugu gazteentzako beken proiektuan hazten jarraitzearen alde eta Entreamigos-Lagun Artean erakundeak Guatemalan bultzatzen dituen lankidetza proiektuetan elkarlanean aritzearen alde.

Gure webgunean eta sare sozialetan sartzera gonbidatu nahi zaituztegu, erakundeetan egiten dugun lana ikusteko. Guatemalan zein Euskal Herriak egiten ditugun ekintzetan eta jardueretan parte har dezakezu.

Buletin hau zuen ingurukoei helaraztera animatzen zaituztegu, hazten jarraitzeko eta hezkuntza bultzatzeko aukerak eskaintzeko, gero eta gehiago izan gaitezen egunero ahalegintzen garenak.

